



## **LGTBI+ bizitzek balio dute**

Maiatzaren 17an, LGTBI+ Fobiaren kontrako egunean esaten genuena errepikatzen dugu Ekainaren 28an, LGTBI+ Harrotasunaren egunean. Harro gaudelako gure bizitzek, harro gure bizi historiaz, harro LGTBI+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituen honetan, inoiz baina garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herriera, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGTBI+ fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta



estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara gobernatzen ari garen hainbat udaletan, eta hori sustatuko dugu ere oposizioan gauden toki guztietan.

Horregatik guztiagatik, **Etxauriko Udalak** honako hau erabaki du:

1. Eskubide-berdintasunaren eta sexu-orientazio, sexu-identitate, genero-identitate edo genero-adierazpenagatiko diskriminaziorik ezaren alde borrokatzen jarraitzea.
2. Informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio-proiektuak garatzen jarraitzea, Etxauri espazio segurua izan dadin, pertsona bakoitzaren sexu-aniztasunaz askatasunez gozatzeko.
3. Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egitea.
4. LGTBI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora Ekainaren 28a!

Etxaurin, 2022ko ekainaren 28an

  
Idola Aritzala Etxarren  
Alcaldesa de Etxauri  
